

## Genero indarkeria, sistemari konpontzea komeni ez zaion arazoa

**Mahai-ingurua:** Josebe Iturrioz Berdintasun teknikaria

Miren Aranguren Bilgune Feminista

Maidor Morras Abokatua eta Arrasateko Berdintasun zinegotzia

**Elkarrizketak:** Anuntxi Arana Bortizkeriaren Kontrako Plataforma

Teresa Zabalegi Nafarroako Indarkeria Sexistaren Kontrako Emakumeen Asanblada



PUBLIZISTA NAIZ  
EMAKUMEA OBJETU  
BIHURTZEN DET,  
HONELA INDARTZEN DET

**KRISI  
MATXISTA**

**AZAROAK 25  
INDARKERIA  
MATXISTAREN KONTRAKO  
NAZIOARTEKO EGUNA**

Krisi hau matxista da,  
emakume eta gizonen arteko  
ezberdintasunak indartzen ditu.

**MATXISMOA KRISIAN  
JARRI BEHAR DUGU!**



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasun Bulegoa  
Negociado de Igualdad

# Estatuak biktimak eta erasotzaileak behar ditu

50 emakume erail ditu genero indarkeriak Euskal Herrian 2002-2012 urte bitartean. Datuak erakusten du arazoaren larria, baina datu horri baino ez begiratzea bera da arazo. Biktimak ez baitira 50, ez urtero salaketa jartzen duten milaka horiek, emakume guztiek jasaten dute indarkeria egunero. Eta erasotzailea ez baita halako pertsona jakin bat, estatuaren makinaria osoa baizik. Legeak, ordea, biktimak eta erasotzaileak seinalatuko dizkigu, arazoaren parte denok garelako jabetu ez gaituzen.

■ **Egilea: Estitxu Eizagirre Kerejeta**  
**Argazkiak: Dani Blanco**



**Genero indarkeria arazo estrukturala dela diogu; nola sortzen ditu gizarteak erasotzaileak eta biktimak?**

**MAIDER MORRAS:** Indarkeria ematen da, gizarteak horretarako bide ematen duelako, nola-bait. Argi dago ez garelako bizi berdintasunean; egun emakumeak estigmatizazioa jasaten du, gutxitze paradigma batean bizi gara oraindik. Eta gizarteak parekidetasuna bilatu beharrean, diferentzia areagotu egiten du, eta arazo honi, nire ustez, gero eta ikuspuntu txarragoa ematen dio. Atzerapausoak eman dira azken urteotan, begi kritikoa ipintzen baduzu ikusiko duzue komunikabideetan eta ematen diren ereduak oso kaskarrak direla. Horrek dakar indarkeriari haizea ematea eta normaltasunez ikustea.

**MIREN ARANGUREN:** Gaiaren planteamendu nagusia egokia iruditzen zait, normalean gaia ez baitugu lantzen bere izaera estrukturala kontuan hartuta. Esango nuke mugimendu feministan ere batzutan kasuistikan erortzeko joera daukagula, oso gertaera lazgarriak direlako erailketa edo bortxaketa. Baina azpimarratu egin behar dugu daukan dimentsio politiko, ideologiko, ekonomikoa... hau da, indarkeria egitura osoan dagoela txertatua eta finean tresna bat dela, zapalduak zapalduak mantentzeko. Ez dakit esango nukeen gizarteak “erasotzaileak” eta “biktimak” sortzen dituela, edo gizonak eta emakumeak sortzen dituela. Niretzako hori da arazoa, herritarrak edo pertsonak sortu beharrean gizonak eta emakumeak sortzen dituela, eta bakoitzari paper bana ematen digula, batzuei biktimena eta besteei erasotzaileena.

**Azala:** Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

**LARRUN pentsamendu aldizkaria** ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.346. zenbakiarekin banatua, 2012ko azaroaren 25ean)

**JOSEBE ITURRIOZ:** Indarkeriaren funtzioa zein da? Desoreka sistema bat mantentzea, non emakumeak diren menpeko eta gizonezkoek pribilegio pila dituzten. Ez dira “erasotzaileak” eta “biktimak”, dira emakumeak eta gizonezkoak. Nola sozializatzen dira emakumeak? Objektu bezala, erabat pasibo direla eta denbora guztian subjektu izatetik aldenduz. Edertasunaren ideia hori da, zu objektua zara eta pozik zaude objektu bat izanez. Hain da beldurgarria, une honetan badugu gizarte bat non mutilek txiki txikitatik *actionman* [jostailuzko gizon gihartsua] bat daukaten eskutan eta beraz sozializatzen diren indarren jabeakuntzatik. Kirolarekin gorputza indartzen dute ikaragarri, eta prestatuta ditugu beren bizitzan egoera guztiak indarkeriaren bitartez

konpontzeko. Gizon bati eskizofrenia diagnostikatzen diotenean, emakumeak hiltzeko joerak ematen dio, baina emakumeek egoera horretan bere buruaz beste egiten dute, auto-lesionatzen dira... gure erokeria erabat desberdina da. Gaurko gizartea oso hipokrita da, indarkeria ikaragarri gustatzen zaio, gerrateetan diru pila bat irabazten du eta emakumea menpean eutsiz diru mordoa aurrezten du sistemak. Hori da indarkeria matxistaren helburua, sistema desorekatua izatea. Kolpea ikusten dugu, begi ubeldua ikusten dugu, eta ez dugu ikusten gizartean zenbat gauza dauden hori horrela izatea ahalbidetzen dutenak.

**Erasotzailearekin zer egin behar da? Gertuko norbait denean ingurukook zigortu behar dugu?**

## M a h a i k i d e a k

### ■ JOSEBE ITURRIOZ

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun aholkularia



Ordizian jaioa (Gipuzkoa), 1978an. Egun Egian (Donostia) bizi da. Filosofian lizentziatu eta bi doktorautza programa egin zituen, eta bigarren tesina nortasuna eta iraultza feministaren inguruan garatua du. 19 urterekin murgildu zen mugimendu feministan, Plazandreok-en hasi eta egun Me-deak taldeko kide da. Bost urtez aritu da berdintasun teknikari Tolosako udalean, eta orain Gipuzkoako Foru Aldundian ari da, Berdintasun sailean.

### ■ MIREN ARANGUREN

Bilgune Feministako kidea



Iruñean jaioa, 1981ean, egun Zarautzen (Gipuzkoa) bizi da. Soziologian lizentziatu zen. Gazte mugimenduan aritu zen urte askoan, eta feminismoari lotu zaio eguneroko lanean. Bilgune Feministako koordinatzaile izan berria, orain Emagin Dokumentazio Zentroan dihardu, formakuntza feminista emanaz. Euskal Herriko mugimendu feministaren historiari buruzko lan bat egina du.

**M. MORRAS:** Hasteko, nor da erasotzaile eta nor ez? Nik abokatu moduan genero indarkeriaren barruan ikusten ditudan kasuak hainbeste eta hain desberdinak dira, zeren batzuetan erasotzailetzat hartzen dena ez da hain erasotzailea, beste kasu batzuetan erasotzaileari garrantzia kentzen zaio eta benetan da arriskutsua... epaitegietan denetik sartzen da. *Actionman*-etik zur eta lur geratzen denera: “Zer? zer egin dudala? ez naiz enteratu ere egin”. Oso zaila da esaten nor baden eta nor ez. Erasotzailea al da momentu batean bere bikotea iraintzen duena, bere bikoteak ere bera iraindu duenean? Beste gauza bat da benetan fisikoki erasotzen duena, edo nire ustez askoz indarkeria larriagoa dena, psikologikoki etengabe erasotzen duena, ez irainekin, baina bai

mespretxuarekin, beti gaineratik jarritz, pixkanaka autoestima jabez... hori da erasotzaile bat. Gizarteak ere zigortu behar du erasotzailea? Noski baietz! Ezin da beste aldera begiratu, eta batzuetan entzuten dugu “beno, ez da hainbesterako izan”, “begira zer egoeran dagoen, lanik ez dauka eta edan egiten du, ulertu ezazu”...

Kontua da, Espainiako genero indarkeriaren legeak erasotua biktimizatu egiten duela. Bikote barruko arazoa konpondu nahi da bitarteko instituzionalekin, eta ez da iristen benetan sakoneko arazoa konpontzera. Zergatik? Aurrekari penalik ez baldin badu eta bi urtez beherako kondena jasotzen badu, ez da kartzelara joango, baina ez du bestelako lanik ere egiten errehabilitatzeko edo horrelako harremanak berriro ez sortzeko. Eta askotan berriro lehengo bikotearengana itzultzen dira. Zerbait ez gara ari ongi egiten. Gizarteak ez du aurkitu zer egin erasotzailearekin, zeren erasotzailea ez bada konturatzen hala dela, ezin du bere jarrera konpondu. Eta polizia emakumearen inguruan baldin badabil bueltaka gizonaren inguruan ibili beharrean, gureak egin du. Eta bistakoa dena, kartzelak ez du ezertarako balio, ez da bergizarteratzeko tresna. Lanketa psikologikoa egin behar da erasotzaileekin.

## ■ MAIDER MORRAS

Abokatua eta Arrasateko Berdintasun zinegotzia



Arrasaten (Gipuzkoa) jaioa, 1976an, eta bertan bizi da. Zuzenbidean lizentziatu eta EHUko Zuzenbide fakultateko irakasle ere izan zen, bi ikasturtez. EZAI Fundazioan eta MCCn ere lan egina da. Orain zortzi urte jarri zuten martxan Larraitx Ugartek eta biek euren abokatu bufeta. Ofiziozko txandak Etxeko Indarkeria gaietan egiten ditu. Guraso, abokatu eta zinegotzi lanak uztartzen ditu.

**M. ARANGUREN:** Erasotzaileen definizio hori pixka bat gehiago zabalduko nuke. Erasotzen gaituztenak ez dira 50 herritar, edo bost mila milioi herritar, estatuaren egitura guztiak dira erasotzen gaituztenak. Oso indarkeria adierazpen zehatzetara bideratzen ditugu legeak, neurriak eta diskurtsoak, eta erasotzaile gisa identifikatzen ditugu indarkeria erabiltzen duten batzuk bakarrik. Niretzako polizia ere erasotzaile izan daiteke une batean, epaileak ere bai. Enpresariak ere bai; eta ez laneko jazarpena dagoenean bakarrik, Euskal Herrian %30-35eko aldea dago gizon eta emakumeen soldaten artean. Hori baimentzen duenak ere emakumeak erasotzen ditu. Kontzeptua zabaltzea ongi letorke, jakiteko guztiok daukagula ardurak kontu honetan, guztiok



**Josebe Iturrioz**

**Estatua oso eroso dago joko horrekin, batzuk beti dira biktimak, besteak erasotzaileak, eta status quo-a mantentzen dute. Guk ez ditugu biktimak behar, ez dugu biktima eta erasotzaileak bereizten dituen gizarterik behar, eskema bera delako. Legea partxe bat da, ez du gizartea eraldatuko”**

sortzen ditugula menpeko harremanak, guztiok iraindu edo jo dezakegula une batean... aztertu behar dena da zer egoeretan iraintzen duten batzuek eta zer egoeretan besteek. Sistemak modu perbertsoan, hipokritan egiten duena da erasotzailea zigortu, baina hori baimentzen duen sistema osoa mantendu.

Eta ados, erasotzailearekin lanketa bat egin behar da, baina ez dugu arazoa psikologizatu bakarrik egin behar, bere arazoa ez da psikologikoa bakarrik. Gizonak bere hegemonia maskulinoa arriskuan ikusten duenean erasotzen du, baina lanketa politikoa ere egin behar da. Erasotzaileak bide batetik eraman nahi baditugu, hori lagundu beharko dugu egiturak ere aldatuz, edo behintzat, saneatuz.

Ez zait iruditzen zigorra denik bidea. Erasotzailea kartzelan sartuta, ez dakit handik zer ateratzen den. Irudikatzen dutelako bere egoeraren kulpaa epaitegiek edo estatuak baino emakumeok daukagula. Ateratzen denean, inork ez du beste prozesu batean sozializatu, kartzelan ematen dioten mezua da “izan zaitez are gizonago eta are biolentoago”. Inor ez da ateratzen pentsatuz “hemendik aurrera emakumeak errespetatuko ditut eta nire jarrerak aztertuko ditut...”. Eta ez zaizkit batere merkeak iruditzen jartzen diren



zigorrak. Badirudi ez baditu kartzelan 20 urte egingo, gutxiegi dela; biktimen familia urte gehiago eskatuz agertuko da. Eta jada ikasi dugu besteren sufrimenduarekin ez dela norberarena sendatzen. Euskal Herrian nahikoa ezagutzen dugu zer den kartzela eta ez da broma.

**J. ITURRIOZ:** Zer egin erasotzaileekin? Berdin zait. Emakumeok ere erantzun dezakegu indarkeriarekin, baina ez gaude sozializatuta erasotzeko. Gizon oro da erasotzaile potentziala. Beraz, lanketa orokorra egin behar da. Lehenik solidaritate maskulinoa hautsi behar da. Tipo batek esaten duenean tipa batekin egon dela eta tipak ezetz esaten zuela baina baietz esan nahi zuela, garbi izan behar dugu bortxatzaile baten aurrean gaudela.

Banakako erasotzailea figura bezala ez zaigu interesatzen. Beste delitugile bat gehiago da. Beraz zer egin? Bada beste delitugile guztiakin egiten den gauza bera. Baina arazoa konpondu nahi duzu? Orduan erantzuna izan behar da estrukturala eta benetakoa. Aldatu behar duzu gizartean generoaren inguruan ematen den informazio guztia. Ikastetxeetan sartu behar

duzu. Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza Sailean ez zuen berdintasun teknikari bat bera ere, duela bi urte arte. Ea zenbat jende ariko den lanean hezkuntzan. Eta teoriarik gaia garrantzitsua da, ezta? Ez dago beste gaitzik hainbeste emakume hiltzen duenik.

Nik behar dudana beste gizon eredu bat da. Feminista gehiago egongo bagina goi karguetan, eta ez orain bezala partxeak jartzen leku guztietan, arazoa konponduko genuke. Konbentziturik nago hamar urtean datuek sekulako biraketa emango luketela. Baina sakona izan behar du lanketak. Kontua da zer egiten dugun gizarte orokorrarekin.

Kartzelan gizonkeriaz jabetzen dira, han ez da genero gaitan sentsibilizatzeko ikastarorik ematen. Kartzela zertarako dago, jendea gizarteratzeko? Zer ari gara, txantxetan ala?! Arazoa da erasotzaileez ari garela hitz egiten, eta begirada erasotzaileengan jartzen badugu, gestio kontu hutsa da, bortxatzaile bat ez da han sendatzen. Sartu baino okerrago ateratzen dira eta ia denak reinzidenteak dira.

**M. MORRAS:** Gainera, erasotzaileengan arreta jartzeak badu arazo bat: ezagutzen diren erasotzaile denak dira gizarteko behe mailakoak. Horiek dira kartzelara joaten direnak: baliabide ekonomikorik ez dutenak, drogekin arazoak dituztenak, arabiarrak...

**J. ITURRIOZ:** Auzitegiek horixe egiten dute, buru bakan batzuk hartu, gutxien axola digutenak... zer gertatu da salatuak izan diren politikariek? nolako prestigioa dute oraindik gizon horiek?

**M. MORRAS:** Lege hau ez da iristen gizarteko goi mailetako biktimengana. Ezta sistema ere. Eta arazoa estrukturala denez, nahiz eta emakume horiek dirua, familia eta dena eduki, ezin dute estatus horretatik atera. Nola azaldu behar dio emakumeak goi mailako jendarte horri bera jasaten ari dena?

**J. ITURRIOZ:** Ez da joango gizarte zerbitzuetera, ez du salatuko...

**M. MORRAS:** Emakume horiengana iristen zara, egoera jada oso muturrekoa denean.

**J. ITURRIOZ:** Eta beste kontu bat: Biktima bat da biktima bat. Gizon batek emakume bat bortxatu duenean, biktima beti da biktima. Ados, denok gara gizartearen produktu. Nik ez dut sistema osoaren erantzukizuna norbanako horri jarriko, ez hamar tiporen edo milaka milioi tipo horien gainean jarriko. Ez dut irakurketa hori egingo. Baina mesedez: Genero indarkeriaren ondorioz zenbat emakume falta dira munduan? Emakumeok gizonetakoak horrela erailko bagenitu, Espainiako Estatuan urtero 70-100 gizon inguru, non egongo ginatke emakumeetakoak? Esango ote lukete “erasotzaile gaixoa, bera ere biktima hutsa da”? Mesedez! Ezin dut eraman: bada mugimendu maskulinista bat, ikastetxeetan mutilekin lanketak egiten hasten denean, mutilak “biktima” izendatzen dituenak. Hori ez da justua. Nik neska-mutilekin lanketak egiten ditudanean, oso ongi esplikatzen diet denak direla sistema beraren produktu, eta erantzukizun hori ez dela indibiduala, kolektiboa baizik. Baina kontxo, erantzukizun indibiduala badago! Ezin duzu esan “jotzen zaitut baina produktu sozial bat naiz...”, “jo egiten zaitut, baina ni ere biktima naiz ezin dudalako negarrik egin...” horrelako diskurtsoekin nazka-nazka eginda nago. Nik ez dut gizon baten bizkar egotziko munduko indarkeria matxista osoaren ardura, baina...

**M. ARANGUREN:** Baina bai berak egin duenarena.

**M. MORRAS:** Ardura hori eduki behar du, bai edo bai!

**M. ARANGUREN:** Gizarteak zeresan handia du honetan, eta eraso txikiak onartzen jarraitzen dugun bitartean, kartzelatik irteten denak lehen



**Maidor Morras**

**Nik ez dakit zerbait konpondu den Espainiako 2006ko Berdintasun Legearekin. Eta askotan kasuz kasu aplikatzen denean ez da konponbidea, alderantzizkoa baizik”**

adina legitimotasun dauka erasotzen jarraitzeko. Niri kartzelak ez dit balio ezertarako, ezta bengantzarako ere. Bengantzarako nahiago dut herriko plazara eramane eta bertan lotsaraztea. Askotan gertatzen da erasotzailea gure herrikoa eta maitatua den pertsona izatea. Eta gizarte mugimenduetako kideekin ere gertatzen da, eta zergatik? ez garelako inor libratzen. Gauza txiki-txikietatik identifikatu dezakegu indarkeria, eta jendeak ez ditu ekintza txiki horiek ere saihesten, ez salatzen. Jendarteak eraso ooren aurrean posizionatu eta horrelako jarrerak baztertu behar ditugu.

**Espainiako Estatuko legea aztertuko dugu, 2006koa. Oso aurrerakoia omen da Europa mailan. Nola baloratzen duzue?**

**M. MORRAS:** Lege hau Ana Maria Orantesen erailketaren erreakzio moduan sortu zen. Orantes telebistan agertu zen esanaz erail egingo zuela bere bikote ohiak. Eta bi egunera hala gertatu zen. Gertakari horren ondorioz etorri zen legea, emakumeak barra barra erailtzen zirelako eta gizarte osoaren ahotan zebilelako gaiaren krudelkeria.

Nik ez dakit handik hona zerbait konpondu den lege honekin. Eta askotan kasuz kasu aplikatzen denean ez da konponbidea, alderantzizkoa baizik. Zergatik? Emakumeak salaketa jartzen duenean, martxan jartzen duenean prozesua, jada ezin delako atzera egin. Emakumeak atzera

egiten badu ere, fiskalak aurrera jarraitu behar du kasuarekin. Eta zuri gertatzen ari zaizun arazo bat instituzioen eskuetan jartzen duzulako. Gero alferrik da esatea “ez, damutu naiz, hau ez da nik espero nuena” ezin duzu atzera egin. Horregatik da hain inportantea emakumeei azaltzea salaketa jartzen duenetik epaiketa ematen den arte nolako urte eta erdia etorriko zaion. Ezingo duela atzera egin, asko jota deklaratzeari uko egin ahalko diola, ezkondata jarraitzen bada. Zeren tarte horretan dibortziatu bada, behartuta dago deklaratzera, lekukoa delako. Eta salaketak kendu nahi izatea oso-oso ohiakoa da. Motibo askogatik. Gai oso konplexua da, baina emakume batek atzera egin nahi bada, bere eskubidea da!

**J. ITURRIOZ:** 1990eko hamarkadan mugimendu feministak eskatzen zuen... lege bat ez, mirari bat. 19 urterekin sartu nintzen mugimendu feministan, eta pasada bat zen ikustea urtero nola erailtzen zituzten emakumeak. Euliak bezala erortzen ginen. Komunikabideei ez zitzaion inporta, “hori ez da albiste, normala da” esaten ziguten. Zentzu horretan aurrerakoia da legea, gai bat jartzen duelako zentroan, arazo larri bat errekonozitzen du eta babestu egiten ditu emakumeak. Baina legeak, teoriarik neurri pila bat aktibatzen ditu gero praktikara eramane ez direnak.

Arazoetako bat Maiderrekin esan duena da, sistema judizialak nola funtzionatzen duen. Ez die emakumeei laguntzen, ez da emakumearen ondoan egoten: emakumeak behar duena da jabetzea, erabakitzea zer den egin behar duena. Erasotako emakumeei arreta emateko profesional oso prestatuak behar dira, psikologia puntu bat dutenak, legea eta gainerako neurriak ezagutzen dituztenak... oso egokia litzateke lehenago indarkeria jasan eta buelta eman dioten emakumeek formakuntza jaso eta berauek izatea beste emakumeei lagunduko diotenak, badakitelako zein den prozesua. Emakume baten esaldia iltzatatuta daukat: “infemua hasi zen salaketa jarri nuenean”. Zergatik? Ez dakitelako zer den aktiba-



tzen dena. Askotan emakumeak ohituta daude indarkeria pila bat jasatera, eta horrekin bizi dira. Eta emakumeok badugu arazo bat: abertzale euskalduna ez da maitemintzen guardia zibilarekin. Emakumezkoak maitemintzen gara gure erasotzaileekin. Gure aitak dira, gure lehengusuak, eta maite ditugu. Hori da indarkeriaren dramarik handiena. Feminista garenok ere gauza asko onartzen ditugu, euskaldunak guardia zibila bati onartuko ez lizkiokenak. Oso konplexua da hori kudeatzea eta lege batek ez du konponduko. Emakume hori ohituta dago indarkeriarekin bizitzen, eta gainera esaten zaio normala dela pixka bat jotzen badute, baina egun batean pasa egin da berarekin, eta denuntzia jarri du. Baina emakume horrek ez daki zer etorriko den horren ondoren. Eta ez da denuntzia faltsua.

**M. MORRAS:** Gainera erakundeek behin eta berriz bidaltzen duten mezua da “salatu”, “salatu”, “salatu”. Gero txostenetan ongi geratzen dira kopuruak eta.

**J. ITURRIOZ:** Beste batzuek bai, oso argi dute banatu nahi dutela, ez dutela atzera egin nahi eta neurri guztiak aktibatzen dituzte: salaketa, urruntzetza agindua... zer gertatzen da? gizona erotu egiten dela. Noiz gertatzen dira erailketa gehien? Dibortziatzen hasten direnean. Emakumeek uzten dituztenean. Emakumeak gizartearen ongien txertatuta daude etxean daudenean, ostiak jasotzen. Orduan inork ez du ezer nabaritzen. Baina salaketa jartzean, orduan hasten dira arazoak. Legeak zer egiten du arrisku bizian dauden emakume hauen alde? bizkartzaina jarri? Jada detektatzen ari gara nola bizkartzainek askotan senar batek bezala jokatzeko duten, eta nola hasiak diren biktimen bizitzan sartzen. Badira bizkartzainak biktimez maitemintzen direnak eta gero eurak dira jazartzen dituztenak.

Amaitzeko, genero indarkeriaz legeak egiten duen definizioa ez da ona. Familiak emakume asko erailtzen ditu, eta beharrezkoa zen berai ikusaraztea. Baina genero indarkeria askoz indar-



Miren Aranguren

**Indarkeriari erantzuterakoan emakumeak izan behar du protagonista. Legeak eta protokoloek ez dute emakumea protagonista egiten eta gizarte zerbitzuek ere ez. Autodefentsa feminista da landu beharreko bidea eta sekula ez da izan erakundearen apustua”**

tsuagoa da, estrukturalagoa. Baina nik ez dut lege honen kontra egingo, bada aurrerakoia ematen dituen erremintetan.

**M. MORRAS:** Lege honi falta zaiona da, prozesu judizialek aparte, alegia salaketa jarri nahi ez duten emakumeen kasuan, mekanismo batzuk aktibatzea egoera hori gañditzeko. Baina ez epaitegian. Praktikan hau jada gizarte zerbitzuek egiten dute, baina tranpa eginez. Zeren gizarte zerbitzuek jakiten badute, salatu egin beharra daukate; sendagileak jakiten badu salatu egin behar du; psikologoak jakiten badu salatu egin behar du... hor dago hutsunea.

**M. ARANGUREN:** Ados nago legearekin, indarkeriaren egiturazko definizioa egiten duen heinean. Baina gero garapena oso eremu zehatz batera mugatzen du, kasu edo indarkeria adierazpen oso zehatzetara. Hori ere ikusarazi behar zen, egoera jasangaitza delako, baina hainbeste feminista lege bat egiten jarrita, garapen zabala goa ematerik bazegoen. Indarkeria ekintza horiek kode penal orokorretik bereizten ditu. Lege antiterroristak ezberdin baloratzen dituen bezala edukiontzia bat Hernanin edo Granadan erretzea, lege honek berdin egiten du, tartean genero indarkeria badago, aktibatzen zaizuna sekulako marroia da. Horrek dakar gauzak ez ongi ulertzea, arazoaren muinera ez iristea, eta



**Josebe Iturrioz**

**Lehendik hilean 10 aldiz jotzen zuen gizonak 20 aldiz joko duela? Bale. Baina krisia bera da indarkeria bortitza eta oso matxista”**

erasotzaileak pentsatzea emakumearen kulpagatik dagoela kartzelan, ez epaitegi edo lege batzuegatik edo egin duenagatik. Kode penal orokorretik ezberdindu beharrean, uste dut indarkeria mota hau zoritxarrez daukagun kode penalean integratu behar litzatekeela. Bestalde, iruditzen zait emakumea gainbabezen duela, baina ez segurtasuna eta justizia emanez, baizik biktimizatuz. Zergatik ezin du emakumeak salaketa atzera botatzen? Iruditzen zaigulako emakumeak hartzen dituen erabakiak ez direla kontzienteak eta beti behar dugula norbait gure gainetik guk ongi edo gaizki hautatu dugun erabakiko duena. Hori gainbabezea da, baina biktimizatzeke, ez subjektu bilakatzeko. Eta azkenik, prozesua ez da berdintasun politikekin laguntzen.

Segurtasuna poliziarekin eta kontrolarekin lotzen dugu. Eta kontzeptua birpentsatu behar dugu eta segurtasuna justiziarekin eta bakearekin lotu behar dugu. Justiziak eta parekidetasunak izan behar du helburua.

**“Biktima” izan behar dugu, edo erasoan aurrean erantzule aktibo?**

**J. ITURRIOZ:** Legeak ez du jokoa apurtzen: emakumeok jarraitu behar dugu objektu izaten, indarkeria modu pasiboan jasotzen. Gizonak dira subjektuak, aktiboak, erasotzaile bezala definituak. Eta estatua oso eroso dago horrekin, batzuk beti dira biktimak, besteak beti erasotzaileak, eta status quo-a mantentzen dute. Erasotzaile horri tiraka hasten bagara, hori da polizia, da Raxoi, da Auzitegi Goren osoa, eredu bera da. Ijitoak, kolokatuta dagoen arabiarrek jo egiten

du emaztea. “Gaiztoa da!” esaten dugu. Zein da legearen helburua? Jo ditzatela pixka bat leunago, disimuluan. Baina ez dugu zalantzan jarriko erasotzaile eta biktima sistema. Estatuak egiten duena da hori kudeatu. Horretarako zer behar dugu? Biktimak “biktima onak” izatea. Biktimak ezin du izan feminista erradikal ilegorria! Niri hori gertatu zait epaitegian, e! Zu ezin zara izan biktima “arraro” bat. Ezin duzu autodefentsa erabili, ezin duzu esan “ni enpoderatuta nago, ostia bat eman dit baina nire bizitza daukat, oso indartsua naiz!”. Biktima gaixoa eszenifikatu behar dugu. Horregatik dugu arazo handia langile sexuarekin, biktima txarrak baitira. Gauza bera punkiekin, erantzun egiten badu, ez da “biktima garbia”. Ni Tolosan berdintasun teknikari nintzela bi emakume erail zituzten: bata eskizofrenikoa, adikzio handiak zituena, bestea Kubatar jinetera, arazo pila zituena. Herriak ez zituen genero indarkeria biktima gisa onartu. Ez ziren emakume ezkondu perfektuak. Guk ez ditugu biktimak behar, ez dugu biktima eta erasotzaileen artean bereizten duen gizarterik behar, eske ma bera delako. Legea partxe bat da, ez du gizartea eraldatuko.

**M. ARANGUREN:** Erantzuterakoan emakumeak izan behar du protagonista. Erasoen aurrean geuk defendatu behar ditugu gure eskubideak. Ezin dugu beste inoren zain egon. Legeak eta protokoloek ez dute emakumea protagonista egiten eta gizarte zerbitzuek ere ez. Emakumearen nahia bigarren planoan geratzen da, zuzenean begiratzen diogu protokolo hurrengo pausoari. Borondate onenarekin, baina emakumea ez dugu bere eskubideez jabetzen, ez dugu subjektu politiko bilakatzen. Iazko azaroaren 25ean emakume askok kontatu zuen zein bakarrik sentitu ziren prozesu osoan zehar. Nik uste hori gertatzen dela, batetik mugimendu feministak jada ez duelako artatze lan hori egiten, aldarrikatu genuen ez zegokigula guri eta instituzioen esku utzi genuen. Hor eten bat sortu da eta mugimendu feministan horri buruzko autokritika egin behar dugu. Lana egin behar

dugu autodefentsa feminista gehiago indartzeko. Nire ustez hori da emakumeekin egin beharreko bidea. Ezberdin sozializatu gara, indarkeria erabiltzeko eta haserretzeko legitimotasuna kentzen zaigu. Autodefentsa feministak gauza horiek denak lantzen ditu, eta sekula ez da izan erakundeen apustua. Mugimendu feministak 35 urte darama hori lantzen, eta erakundeek adibidez, inoiz ez dute eskoletan landu.

**J. ITURRIOZ:** Emakumeen arteko elkartasunerako arazo da “beraiek” eta “gu” banatzea. Emakume guztiok jasaten dugu indarkeria, denok gara biktima. Bakoitzak hasi behar du onartzen zein den berak jaso duen indarkeria eta publikoki esaten. Berdintasun formalaren espejismoan bizi gara, eta pentsatzen dugu badirela emakume batzuk biktimak direnak (hori oso ondo lortzen du legeak), eta estatuari hori interesatzen zaio, denok ez ulertzea norbera ere biktima dela. Estatuak isolatu egiten du biktima, estrategikoki. Nola lortu elkartasuna? Autodefentsa feminista bide ona da. Ikastaroetan ez dugu denbora asko ematen nola jo ikasten, alde psikologikoa da gehien lantzen duguna, eta gure estrategiak garatzen ditugu: indarkeria kudeatu egin behar da, ez biktima sentitu.

**M. ARANGUREN:** Mugimendu feministak apustu garbia egin behar du eraso oso bortitzak jasan dituzten emakumeen arteko sarea sendotzeko. Erakundeek terapiak eta eskaintzen dituzte, baina inoiz ez da apusturik egiten kolektibizatzeke eta politizatzeke. Antolatzea da bakarrik ez sentitzeko bide bakarra.

**J. ITURRIOZ:** Gure gizartean kontratu soziala kontratu sexualaren gainean oinarritzen da. Gizonezkoek historian zehar gaurko eskubide sistema lortu dute, etxean erresuma bat sortuz, non gizon bakoitza den errege eta azpian duen emakume bat. Hori horrela egiteko, paktu sozialean gizartearen erdia dago beldurrez akabatzen, eta beste gizarte erdiak ez dauka beldurrik. Bai, gizonak beldurra dio, baina ez emakumeari, bera

baino indartsuagoa den beste gizon bati baizik. Gizartean ez du egon behar kontratu sozialik beldurren desorekan oinarritzen denik. Denok izan behar diogu elkarri beldurra, edo errespetua. Nik ez dut erasokorra eta biolentzia izan nahi, nahi dudana da gizarte kontratua zein baldintzatan ematen den ulertzea. Zergatik ez dit gizon batek eduki behar nik berari diodan beldur bera? Sekula biolentziarik jasan omen ez duten nerabeek kontatzen dizute asteburuero kaka eginda joaten direla parrandatik etxera, eta koardilak laguntzen diela, 40 urteko tipo bat atzetik dutelako... hori zer da? Gerran bizitzea! Nik esaten badut gizonak gure beldur izan behar dutela “ene, Josebe, ze erradikala!” diote. Joder, eta nola bizi gara bada besteok?! Inork ez du esaten “ze erradikala den matxismoa!”.

**Krisiarekin okerrera egingo du arazoak.**

**J. ITURRIOZ:** Lehendik hilean hamar aldiz jotzen zuen gizonak hogeai aldiz joko duela? Bale. Baina krisia bera da indarkeria bortitza eta oso matxista. Hau ez da finantza krisia, zibilizazio krisia da! Krisiari jendearen bizitza ez zaio batere inporta. Gizon gorbatadunak esan eta esan ari dira zein garrantzitsua den dirua eta merkatuak asetzea. Eta horrek jende pila bat erailtzen du, berez. Krisia gizartearen banaketa honetan oinarritzen da, espazio publikoa eta pribatua, kapitalaren munduan egiten diren gauzei bakarrik ematen zaie balioa, BPGan ez dira azaltzen emakumeek dohainik egiten dituzten zainketa lanak, ez inpaktu ekologikoa... Ez gara jabetzen bizitzarako eskubide denak kentzen ari zaizkigula, etxea, osasuna, hezkuntza... eta hori guztia zer da? emakumeok kezkatzen gaituzten gaiak, bizitza aurrera ateratzearekin lotuak. Krisia hori dena kentzeko aitzakia hutsa da, hemen inor ez baita ari dirua galtzen, gu ezik. Haserretzen naiz indarkeria krisiarekin lotzen denean. Gure etxean beti izan ditugu arazo ekonomikoak, gurean emakumeak beti bizi izan gara krisian. Baina gure aita etxetik joan zenean, orduan bukatu zen indarkeria. ■



**Anuntxi Arana**

Bortizkeriaren  
Kontrako Plataforma

## «Aski adierazgarria bada agintariek lege integrala atera ezina»

**I**par Euskal Herrian indarrean den legeak hobekuntzak txertatu zituen 2010ean. Hegoaldean ez bezala, salaketak jartzerakoan bi formula eskaintzen ditu, baina urrun dago lege integrala izatetik. Baliabide eskasia eta gizartean kontzientzia falta nabarmendu ditu Anuntxi Aranak.

### Iparraldeko egoera nola baloratzen duzu, lege aldetik?

Lege aldetik, genero bortizkeriaren aurka eta bortizkeria horren biktimen babesteko, 2010eko uztailera azaldu behar da. Lege horren berritasun garrantzitsu bat izan da bortizkeria psikologikoa aitortu izana. Horrekin batera, babesa eskaintzen die mehatxatuak dauden emazteei, hau da, kolpe, bortxazko ezkontza edo sexu mutilazio arriskua dutenei. Bestalde, atzeritar emazteentzat Frantziako Estatuan sartzeko kodea eta egoiteko eskubidea aldatuak dira, erran nahi baitu “egonaldi agiria” emango edota berrituko zaiela ezkontidearen bortizkeria jasan dutenei.

Legeak erasotzailearen urruntzea ahalbidetzen du eta uztai elektronikoaren erabilpen esperimentalak proposatzen du; eta aipatzen du bortizkeriagatik etxetik joan behar izan dutenentzat aterpetzeko egoitzak erreserbatuko direla. Prebentzioari dagokionez, irakaskuntzan sexuen arteko berdintasunaren bultzatzeko eta gaiak sentsibilizatzeko neurriak hartuko direla dio.

Aurrerapausoa bada ere, 2010eko legea ez da asegarria, oso modu aleatorioz aplikatzen da, eta

ez du betetzen lege integral baten funtzioa. Oraindik ere sexismoaren kontrako neurriak kode desberdinetan barreiatuak dira (zigor kodean, kode zibilean, lan zuzenbidean...) eta kontraesankorrak dira askotan; adibidez, erasoak direnean, ez dute berdin ikusten haurrak norekin egongo diren eta zer baldintzetan. Hots, lege integrala da feministen aspaldiko eskaera, koherentea izango dena eta sexismoarekin zerikusia duten arlo guztiak ukituko dituena.

Egoera nolakoa den neurtzeko, begira zer gertatu den udaberrian. Sexu jazarpena zigortzen duen lege bat bazen, baina eskasa eta ez batere zehatza bere definizioetan. Ba, jazarpen delituaz akusatua zen ministro ohi batek dei egin zuen, argudiatuz injustizia zela lege lainotsu baten ize-nean kondenatua izatea. Parentesi artean erratekoa da urteak badirela talde feministek eskatua zutela lege horren aldatzea, baina ez zitzairen kasurik egiten. Feministei ez, baina bai ministro ohiari: konstituzio kontseiluak legeak ez zuela balio erabaki zuen eta, ondorioz, auzitan zeuden kasuak blokeatuak izan ziren eta akusatuarentzat zigorgabetasun osoa ebatzi zen. Helegiteak izan ziren eta bitartean baita hauteskundeak ere, eta

sozialistek lege berria egin dute udan. Halere, lehen eginak ziren salaketa batzuek ez dute segidarik izanen, ezin delako bi aldiz delitu bera salatu, eta beste delitu gisa berkalifikatzen badira, ezin zaie legea modu erretroaktiboez aplikatu. Beraz salaketen erdia-edo bertan behera eroriko dira.

### Poliziak erabakimen handia du prozesuan? Nola baloratzen duzu bere parte-hartzea?

Ontsalaz, poliziak ezin du salaketa bat errefusatu, baina ez du aspaldi horixe egiten zuela, emazte batek bortxaketa edo bere gizonak jo zuela salatzeraz joaten zenean. Errealitate hori ezagutua eta askotan salatua baitzen, Sarkozyk zirkular bat egin zuen, biktimak errespetatzekoak direla erranez, eta haien eskaerak bete behar direla. Hemen, bi salaketa mota badira; batek (“main courante” edo arina), ez du baitezpadako edo berehalako ondorioa, baina erreintzidentzia baldin bada hor dago erregistratua; salaketa formalak (“plainte”), askoz larriagoa da. Sarkozyren zirkularrak erraten zuen poliziak ez duela “main courante” aholkatu behar, alderantziz baizik. Erasotako emazteen errezibitzeko funtzionarioen formazioa ere aipatzen da, denek aitortzen dute horren beharra; gero, krisia dela, murrizketak direla, deus guti egiten dute eta, askotan, betiko moduan... Zer, zirkularrak zirkular, badakigu geroztik salaketa formalak ezartzea ez dutela beti errazten poliziek.

### Nahikoa baliabide jartzen dira emakumeak babes-teko eta beren bizitza berregiteko?

Inondik ere ez, nahiz eta medioetan gaia aipatzen den eta kanpainak egin diren. Iparraldean ez da emazteen aterpetzeko etxe berezirik; Baionan bada aterpetxe bat larri dabilzan ororentzako, 35 lagunentzako lekua duena; apartamentu batzuk ere badira, haietarik zenbait emazteendako erreserbatuak.

Badira informazio eta laguntza zerbitzuak ere Baionan, eta permanentziak egiten dituzte Hendaietan, Lohitzunen eta Donapaleun. Baina oro

har eskasia handia da, finantzamendu eskasa delako: Ipar Euskal Herriak ez du bere departamendu propiorik, Biarnorekin partekatatu behar du, eta hiriburua, Pau, Biarnon dago; dirua banatzeko orduan Pauek hartzen du lehoi zatia eta hemengorako guti gelditzen da.

### Gizarte mailan, indarkeria honen kontrako kontzientzia hedatua da?

Genero bortizkeriak ez du orainokoa mobilizazio handirik eragiten, indiferentzia sentitzen da, nabari da hiltze sexista baten ondoan egiten diren elkarretaratzeetan zer jende kopuru eskasa biltzen den. Askotan entzuten da krimen horiek gertakari pribatuak direla eta prentsa mota batek gaur egunean ere “pasio krimena” terminologia erabiltzen du usu. Feministek kalean salaketa egin eta gertatu izan zaigu biktimaren lagun bategi batek begirune eza leporatu izana: “Nor zarete zuek nire adiskidearen heriotzaz baliatzeko, zer dakizue nola gertatu diren gauzak?”. Krimena herri ttipi batean gertatzen denean, hara ez agertzeko aholkatzen digute, herri barneko gauzetan sartzeko eskubiderik ez dugulakoan... Holakoe-tan auzo herri handiago batean egin ohi dugu elkarretaratzea.

Agintari mailan, aski adierazgarria da lege integrala aurrera atera ezina. Gero sentsibilizazio kanpainak egiten dira noizbehinka, 2010ean “nazio kausa” izan zen sexismoaren kontrako borroka. Halere Hexagonoko herri batzuetan ekimen politak abiatu dira, legea aplikatzeko ordenantzak eta. Baionan, 2010 bukaeran Emazteenganako Bortizkerien Behatokia sortu zuen Herriko Etxeak, elkarte eta erakunde anitz bilduz. Laguntza telefono bat jarri du eta iragarkiak ezarriz edota foiletoak zabalduz jakinarazi du tresna hori badela, edonork balia dezakeela.

Gauzen aitzinatzeke dirua da arazoa, emazteentzako aterpetxea premiazkoa den arren, honaino heldu diren purruxkak ez dira aski plantako zerbituen egiteko. ■





**Teresa Zabalegi**

Nafarroako Indarkeria  
Sexistaren Kontrako  
Emakumeen Asanblada

## «Nafarroan atzera goaz»

**A**bokatuak, kide den plataformak presio lana egin zuen Nafarroako Gobernuarengan, 2002ko legea atera zedin. Hamar urte beranduago, lege aurrerakoiagoa eginaraztea dute helburu. Plataformatik manifestaziorako dei egin du: azaroaren 25ean 12:00etan Gaztelu Plazan, “gizartea ez baita gaiaren larritasunaz jabetu, eta errealitateak erakusten du neurri gehiago hartu behar direla”.

### Nola dago genero indarkeriaren kontrako borroka Nafarroan?

Foru Erkidegoan lege bat onartu zen 2002ko uztailean: neurri integralak biltzen zituen baina oso lege deskafeinatua atera zen eta 2003ko martxoan beste lege bat egin zuten, beste puntu batzuk gehiago jasoz. Lege hori garatzen duen Foru dekretua 2007ko otsailaren 28an onartu zen. Baina legean zeuden neurriak ere ez ditu kontuan hartzen dekretu honek. Adibidez, emakumeen arretarako zentroak legeak estipulatzen ditu, baina araudiak ez. Hamar urte bete ditu lege horrek eta erakundeetako indarrek, PSON eta UPNren arteko hausturaren aurretik, esaten zuten beste lege bat egingo zutela, ikusten zelako zegoena ez zela nahikoa. Baina egungo egoera politikoarekin, honetaz ez da jada batere hitz egiten. Plataformaren ikuspegitik, lege hau oso-oso gutxienekoa da. Hasteko, genero indarkeriaz jasotzen duen definizioak nahasteak sortzen dituelako, gizonezkoen kontrakoak ere genero indarkeriatzat hartuz. Egia da baita ere, Nafarroako legeak kontuan hartzen dituela bai familia inguruan eta baita publikoki egindako indarkeria kasuak; Estatuko legeak, aldiz, genero indarkeria bakarrik ulertzen du familia inguruan eman bada edo harreman sentimen-

talik egon bada tartean. Guretzat oso garrantzitsua da prebentzioan (hezkuntzan) egin beharreko lana, eta legeak esaten duen arren hezkidetzak unitateak eratuko direla, praktikan ez da egin. Emakumeen arretarako zentro integralak ere oso beharrezkoak dira, eta ez dira praktikan jarri. Eta profesionalizazioan ere herren gabiltza: hain gai zehatza, konplexua eta zabala izanik, beharrezko ikusten dugu profesionalak oso espezializatuak eta prestatuak egotea, bestela ez dira egoera asko ulertzen. Hori beharrezkoa da lege munduan (abokatu, epaile, langile...), gizarte langileetan, osasun alorrean, eremu guztietan alegia. Ez dago horrelako formaziorik, egia da genero indarkeriarako epaitegiak sortu zirela, Iruñean, Tuteran, Agoitzen, Lizarran eta Tafallan. Baina epaitegi hauek ari diren langileek askotan ez dute prestakuntza berezirik, eta norberaren sentsibilizazioaren esku geratzen da kontua; baldin badu inplikaturik da eta ez badu, kasu asko ezingo ditu ulertu.

### Legea nola aplikatzen da?

Aurrera beharrean, atzera goaz horretan. Kanean uste da berdintasuna lortuta dagoela, denok bada-kigula zer den genero indarkeria eta gizartea orokorrean horren kontra dagoela. Baina kasuz kasu

aztertzen denean zer den indarkeria, hor datoz eztabaidak. Salaketa jartzen duten emakumeen kontrako kanpaina bizi dugu, eta batez ere indarkeria bukatu nahi duen mugimenduaren kontra. Nolabait zalantzan jartzen dira salaketa hauek guztiak eta gaiaren larritasuna. Horrek zer dakar? Kasu askotan emakumeek salaketa atzera botatzea. Askok hitz egiten da salaketa faltsuei buruz, gainerako delituetan aipatu ere egiten ez direnean. Beti daude salaketa faltsuak, baina estatistikek erakusten dute genero indarkeriazko salaketan kasuan portzentajea minimoa dela, aldiz, pisu handiegia ematen zaio. Baita ere ikusten da gaia desideologizatu egiten dela, emakumeen gaia dela, nahiz eta ideologikoki zabaldua eta onartuta zegoen arazo publikoa dela, berriro ikusten dugu eremu pribatura itzultzen ari dela. Erakundeen ardura behar luke legea egokitzen saiatzea, eta ez dira horretan ezer egiten ari. Lehendik zegoena egiten ari dira, eta hartu beharreko neurriek inbertitzea eskatzen dute, eta baliabideak handitzea, eta alderantziz, murrizketak egiten ari dira.

### Gizarte laguntzaileengana jotzen dute lehenik emakumeek. Prestatuta daude ongi erantzuteko?

Guk aldarrikatzen dugu beharrezkoak direla emakumeen arretarako zentro integralak, gutxienez Iruñean eta 20.000 biztanletik gorako herri eta eskualde-buruetan. Bertan espezializatutako langileek emakumeak alor denetan orientatuko litzukete, zer laguntza dituzten –salaketarik ez jartzeko motibo nagusia izaten baita baliabide ekonomiko eza–, salaketa jarri nahi ez dutenek zer beste baliabide dituzten, eta beren behar denei nola aurre egin (etxebizitzaren arazoari, osasunari, arazo psikologikoari...). Mota honetako zentroa Tuteran zegoen, baina ez du behar beste baliabiderik jaso eta ia ez xitekotan egon zen. Egun akordio batera iritsi dira, baina ez du lehengo zerbitzu osoa eskaintzen. Egunerokoan, eskualde-buruak diren herrietara jo behar dute emakumeek.

### Familia eta Berdintasunerako Institutua da orain Nafarroakoa. Zer dakar izen aldaketak?

Atzerapausoa. Lehenik Nafarroako Emakumearen Institutua sortu zen. Duela lau zapabost urte Berdintasunerako Institutua jarri zitzaion izena, bere edukia zuena, helburu horretara iristeko baliabideak biltzen zituelako. Eta aurten beste buelta bat eman diote eta Familia eta Berdintasunerako deitzen da. Nork jakin urte batzuk barru Berdintasuna kendu eta Familiarako Institutua izango den. Familiaren gaiak ez du zerikusirik berdintasunarekin, eta bultzatzen dutena familia eredu bat bada, berriro eredu patriarkalak birproduzitzen ari gara, zeinetan oso arau jakinak dauden eta emakumea gizonaren menpe dagoen. Gainera baliabideak bi gaietarako banatu behar dira, eta familiaren barruan dago adin txikikoen gaia, premiazkoa dena. Eta hainbeste aldaketa politiko dagoenez, ez dakigu zer norabide hartuko duen Institutu honek.

### Zein dira behar nagusiak?

Juridikoki dagoen arazorik handiena da ekintzak frogatzea. Etxean gertatzen denez, epaitegiek ez dute ikertzen eta emakumea frogarik gabe doa epaiketara, horregatik emakumeentzat oso frustrantea da. Parte medikorik baduzu gaitzerdi, baina kalte fisiko larriak ez badira (bultzadak...) edo erasoak psikologikoak badira, salaketak ez du batzuetan aurrera egiten. Epaitegiek gehiago ikertu beharko lukete. Garrantzitsua litzateke baita ere emakume hauek zerbitzu psikologikorako sarbidea izatea. Hasieran laguntza psikologikoa eskaintzen zaio, baina ez da nahikoa, luze jotzen du dependentziaz iriteteak. Hezkuntza indartu beharraz ere ziur gaude. Estatistika denean ateratzen da gazteengan ematen dela indarkeria sexistak, 24-34 urte artean. Harreman eredu erromantikoak errepikatzen ari dira, modaz paseak zeudela uste zenean. Dependentsia harremanak ikusten dira, eta estatistikoki ugartzen ari da gazteen artean ematen den indarkeria. Hezkidetzak landu behar da eta ez da egiten. Ez dago derrigorrezko programarik, ikastetxe bakoitzaren esku geratzen da gaia lantzea. ■



Oraindik EZ dugu  
BAKERIK emakumeok,  
indarkeria matxista  
jasaten baitugu etxean,  
kalean eta lanean.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Foru Plana